Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Nekazaritza Saila
Departamento de Agricultura

101/2023, de 10 de marzo

FORU AGINDUA

Nekazaritza Saila
Esptea: INFOPU-2023/1

[redacted] informazio publikoa eskuratzeko aurkeztu duen eskaeraezestea

2023ko urtarrilaren 5ean Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean / Egoitza Elektronikoan / Erregistro Elektroniko Komunean jaso da Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren itzalpean informazio publikoa eskuratzeko aurkeztutako eskaera.

Honako hau eskatzen zuen: "Nire datuak jasotzen dituen Ertzaintzak bidalitako espedienterako sarbidea, animalien garraioari buruzkoa, Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Sailera bidalia".

Abeltzaintza Zerbitzuan dagoen informazioa aztertu ondoren, uste dugu zure eskaera zuk aurkeztutako salaketa bat jasotzen duen espediente bati buruzkoa dela.

Horri dagokionez, adierazi behar dizugu, alde batetik, salaketa bat jarri izanak ez dizula interesdun izaera ematen, eta, beraz, ezin duzula espediente hori modu horretan eskuratu.

Bestalde, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunari, herritarren parte-hartzeari eta gobernu onari buruzko otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 31.4 artikuluaren b) letrak jasotzen du zigor arloko legez kontrako jardueren edo urraketa administratiboen prebentzioa, ikerketa eta zehapenari buruzko informazioa mugatzea edo ukatzea.

Aurretik azaldutakoa oinarri hartuta, eta aipatzen den espedientearen izaera kontuan hartuta,

ORDEN FORAL

Departamento de Agricultura
Expte: INFOPU- 1/2023

Desestimar el acceso a información pública solicitada por [redacted]

Con fecha 5 de enero de 2023 tuvo entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava/Sede Electrónica/ Registro Electrónico Común escrito de solicitud de acceso a la información pública presentado, al amparo de la Norma Foral 1/2017, de 8 de febrero, de transparencia, participación ciudadana y buen gobierno.

Dicha solicitud consiste en "acceso al expediente en el que constan mis datos, enviado al Departamento de Ganadería de la Diputación Foral de Álava, remitido por la Ertzaintza, sobre transporte de animales".

Analizada la información obrante en el Servicio de Ganadería, entendemos que su petición se refiere a un expediente en el que consta una denuncia por usted presentada.

Al respecto procede indicarle, por un lado, que haber interpuesto una denuncia no le confiere la condición de interesado por lo que no puede acceder a dicho expediente en dichos términos.

Por otro lado, la letra b) del artículo 31.4 de la Norma Foral 1/2017, de 8 febrero, de transparencia, participación ciudadana y buen gobierno del sector público del Territorio Histórico de Álava, contempla la limitación o denegación de información referida a la prevención, investigación y sanción de ilícitos penales o de infracciones administrativas.

En base a lo anteriormente expuesto, atendiendo a la naturaleza del expediente al que se refiere,

bidezkoa da eskatutako informaziorako sarbidea ukatzea.

Hori dela-eta, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren Foru Arauaren 35.1 artikuluaren arabera dauzkadan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Eskaera aztertu da eta erabaki da ukatzea honi buruz eskatutako informazioa:

- Nire datuak jasotzen dituen Ertzaintzak bidalitako espedienterako sarbidea, animalien garraioari buruzkoa, Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Sailera bidalia.

Eskatutakoa ukatzeko arrazoiak ebazpenaren azalpen zatian zehazten dira.

Bigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan jakinarazten den egunaren biharamunetik bi hilabete pasatu baino lehen edo, bestela, errekurtso horren aurretik, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Foru Kontseiluaren aurrean aurreko egun beretik hilabete pasatu baino lehen.

Vitoria-Gasteiz.

Eduardo Aguinaco López de Suso
Nekazaritza Saileko foru diputatua
Diputado Foral de Agricultura

procede denegar el acceso a la información solicitada.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen de acuerdo con el artículo 35.1 de la Norma Foral de Transparencia, Participación Ciudadana y Buen Gobierno del Sector Público del Territorio Histórico de Álava

DISPONGO

Primero. Analizada su solicitud, se deniega el acceso a la información solicitada relativa a:

- Acceso al expediente en el que constan mis datos, enviado al Departamento de Ganadería de la Diputación foral de Álava, remitido por la Ertzaintza, sobre transporte de animales.

Se deniega la solicitud por los motivos expuestos en la parte expositiva de la presente resolución.

Segundo. Contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante los juzgados de lo contencioso-administrativo de Vitoria-Gasteiz en el plazo de dos meses o, previa y potestativamente, reclamación ante el Consejo foral de Transparencia y Buen Gobierno en el plazo de un mes; en ambos casos,el plazo se contará desde el día siguiente al de lanotificación de la presente resolución.

María Asunción Quintana Uriarte
Nekazaritza zuzendaria
Directora de Agricultura